

Erakundearen helburuak

Gure lana, kanpora begira:

- Gure funtsekin bat datozen beste erakunde eta plataformekin batera, egungo sistema politiko eta ekonomikoan eraldaketak bideratzera zuzendutako ekintzak burutzea, bidezko eredu demokratiko eta zuzenago baten alde.
- Mugimendu feministarekin, emakume elkarteekin eta bestelako gizarte eragileekin aliantzak sortzea, berauekin batera, zapalkuntza egoera jasaten duten emakumeen errealitateak islatuko dituzten politikak, praktikak, jokoerak eta balioak sustatzeko.
- Gizarte-kontratu eta paradigma politiko eta ekonomiko berriak sortzeko erakunde feminista eta emakume taldeen proposamenak bultzatzea, azaleraztea eta balioztatzea.
- Salaketa ekintzak sustatzea eta genero-desberdintasunak sortu eta erreproduzitzen dituzten erakunde formal eta informalak eraldatzeko proposamenak egitea.
- Emakumeen eskubideen aldeko borrokan dirauten edota berauen autonomia pertsonal nahiz kolektiborako prozesuetan parte hartzen duten erakunde feminista eta emakume taldeengana baliabideak bideratu, berauek sendotzeko eta beren agendak bete ahal ditzaten.
- Genero-desberdintasunen sortzaile diren faktoreekiko gizarte kontzientzia kritiko baten garapena sustatzea, gizarte mobilizazioa sustatzearekin batera.
- Nazioarteko elkarkidetza sektorean ahalmenak eraikitzen laguntzea, genero berdintasun eta emakumeen botere-hartze prozesuetan, genero eta garapen alorrean ezagutza eta ikerkuntza bultzatzearen bidez.

Gure barne-lana:

- Cooperaccióren antolaketa-kulturaren aldaketak eragitea, erakundearen funtzionamenduan genero-desberdintasunak ezabatuz, eta kontzientzia eta ahalmen feministak eraikiz, erakundearen egunerokotasunean genero zeharkakotasun eraginkor bat bultzatzeko.
- Elkarkidetza bultzatzea, erakundearen funts eta helburuekin bat datozen taldeekin, partaidetzan oinarritua eta oinarri sozial kritiko bat sortzeko helburuarekin, zeinak egungo eredu sozial, politiko eta ekonomikoaren aurrean, elkarkidetza eredu eraldagarri bat proposatzeko ahalmena izango duen, emakumeen indarhartze prozesua eta genero berdintasuna bere ekimenaren oinarri izango dituelarik.